

BIKTIMARI LEHENENGO HARRERA EGITEKO  
JARRAIBIDEEN ESKEMA

INDARKERIA MATXISTA KASU BATEN AURREAN

BIKTIMARENGANA HURBILDU  
ZURE LAGUNTZA NAHI DU?

BAI

- Ez utzi bakarrik
- Ahal bada bere konfidantzazko norbaiti abisatu

Baliabideen informazioa eman (24 h)

- EKIM 900 840 111
- 112

Biktimak hala nahi badu, berarekin gera zaitez behar besteko denboran edo bere konfidantzazko norbait bilatu.



EZ

- Bere erabakia errespetatu.
- Ahal bada, eta biktimak hala nahi badu inguruko norbait bilatu, biktima bakarrik ez uzteko.

- Bere ingurukoei baliabideen informazioa pasatu.

- Joaten zarenean biktima bakarrik uzten ez duzula ziurtatu.

EZIN DU ERABAKIRIK HARTU

- Ez utzi bakarrik
- Ahal bada bere konfidantzazko norbait bilatu

- Deitu **112**ra edo Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxista (EKIM) zerbitzura **900 840 111**
- Itxaroten duzuen bitartean leku lasaia bilatu



**Enpatia** erakutsi biktimarekin,  
**berak ez dauka errurik**

**Ez epaitu**, ez kendu garrantzirik gertatukoari, **ez jarri zalantzan** biktimari ez galdetu: "Seguru zaude?" "Ez zaude agian esajeratzen?"

**Pazientzia** izan, eta errespetatu bere erritmoa bizitakoa kontatzeko

**Erasotzailearekin: ez defendatu** edo justifikatu. Agian erasotzailea ezagutzen duzu eta ez duzu gai ikusten erasotzeko. Kontuan izan **nahiz eta zure laguna izan erasotzailea izan daitekeela**

Biktima laguntzeko **konfidantzazko norbait** bilatu, berak nahi izanez gero.

**Biktimarekin: ez presionatu** horrelako esaldiekin: "Salatu behar duzu!" "Nor izan da?"

**Galdeiozu** beste pauso bat eman baino lehen, biktima ados egon dadin

**Biktimarekin: ez utzi bakarrik**, ez erabakirik hartu **biktimarekin adostu barik!**

MAIXISMOARI  
PLANTO

Eskoriatzako jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko  
**protokoloa**